

**UPPAren eta UPV/EHUren ARTEKO TUTOREKIDETZA
ERREGIMENEAN DOKTOREGO TESIAK EGITEKO
PRESTATZEN ARI DIREN IKERTZAILEAK
KONTRATATZEKO DEIALDIA
(2018)**

**Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-
behineko zerrenda**

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) oniritzia jaso ondoren, eta Gobernu Kontseiluak 2018ko martxoaren 5ean onartu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak honako deialdi hau argitaratu zuen:

UPPAren eta UPV/EHUren ARTEKO TUTOREKIDETZA ERREGIMENEAN DOKTOREGO TESIAK EGITEKO PRESTATZEN ARI DIREN IKERTZAILEAK KONTRATATZEKO DEIALDIA (2018)

Eskaerak aurkezteko epea bukatuta, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren Ikerketaren Kudeaketa Zuzendaritzak jasotako eskaerak aztertu ditu, ondoko alderdiak aintzat hartuz:

2. Oinarrian xedaturiko baldintzen betetzea eskatzaileen aldetik.
3. Oinarrian xedaturiko baldintzen betetzea, tesi zuzendari izateko proposaturiko pertsonen aldetik.

Eskaera behin-behinean onartu zaien eskatzaileek ez dute izapiderik egin behar. **Ezin izango da eskaera osorik berriro aurkeztu, edo eskatu ez den dokumentaziorik aurkeztu.**

Eskaera **behin-behinean baztertu** zaien pertsonak akatsak zuzentzeko aukera izango dute **2018ko azaroaren 13tik azaroaren 27ra bitartean (biak barne)**. Zuzendu beharreko akatsak erabaki honekin batera publikatu den zerrendan zehaztuta daude. **Ezin izango da eskaera osorik berriro aurkeztu, edo eskatu ez den dokumentaziorik aurkeztu.**

Alegazioak UPV/EHUko Erregistro Orokorreko bulegoetan edo edozein posta bulegotan aurkez daitezke administrazio bidalketaren bidez, hau da, dokumentazioa gutun azal irekian aurkeztuta Postetxeko langileek lehenengo orriari zigilua jar dezaten eta, behin hori eginda, posta ziurtatuaren bidez igorri hona:

**Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Ikerketaren arloko Errektoreordetza (Deialdien Atala)
Errektoregoaren eraikina
Sarriena auzoa, z/g
48940 – Leioa (Bizkaia)**

Posta elektronikoz bidalitako alegazioak ez dira inolaz ere baliozkotzat joko.

Leioa, 2018ko azaroaren 12an.

BEHIN-BEHINEAN BAZTERTUTAKO ESKAERAK ZUZENTZEKO JARRAIBIDEAK

ZUZENKETA KODEA	ARRAZOIA	ZUZENKETA EGITEKO JARRAIBIDEAK
2.1.a.i oinarria	Ez da proposatutako ikerketa proiektuaren gaiari loturiko lan ibilbidea edo ikerketa jarduna egiaztatzen, oinarri honek dinoen arabera <i>"3.1.a.Honako baldintza hauetakoren bat bete: i. Doktoregora sartzeko bide ematen duen unibertsitate tituluaren jabe izan, 2015ko urtarrilaren 1etik aitzina lortuta. Salbuespenez, titulazioa lehenagoko data batean lortu izana izan ahalko da, proposatutako ikerketa proiektuaren gaiari loturiko lan ibilbidea edo ikerketa jarduna egiaztatzen bada. IGBBk balioetsiko ditu baldintzok baldintza hau bete den edo ez ebazteko.</i>	Dokumentuak aurkeztu PDF formatuan, CD, DVD edo pendrive batean sartuta. <u>Erregistroan aurkeztu behar da dena delako gailua.</u> Aurkeztu beharreko agiria aurkezten ez bada eskaera baztertua izango da.
5.2.c	Ez da aurkeztu oinarri honek eskatzen duena: "5.2.. c... <i>Atzerrian zatika edo osorik egindako ikasketen kasuan, gainera atzerrian egindako unibertsitate titulazioen batez besteko nota baliokidearen ziurtagiria aurkeztu beharko da, Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziak (ANECA) emana..."</i>	Dokumentuak aurkeztu PDF formatuan, CD, DVD edo pendrive batean sartuta. <u>Erregistroan aurkeztu behar da dena delako gailua.</u> Aurkeztu beharreko agiria aurkezten ez bada eskaera baztertua izango da
5.2.d	Ez da aurkeztu oinarri honek eskatzen duena: "5.2.. d. <i>Eskatzaileen Curriculum Vitae..ingelesez .."</i>	Dokumentuak aurkeztu PDF formatuan, CD, DVD edo pendrive batean sartuta. <u>Erregistroan aurkeztu behar da dena delako gailua.</u> Aurkeztu beharreko agiria aurkezten ez bada eskaera baztertua izango da

I. eranskina

Balioetsiko diren eskari onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda

Kodea	NAN	ZUZENDU BEHARREK O ALDEAK	ESKARIA BERRIKUSTEAREN EMAITZA
PIFPAU18/01	18060020Y		BEHIN BEHINEAN ONARTUA
PIFPAU18/02	160864300636	5.2.c- 5.2.d	BEHIN BEHINEAN BAZTERTUA
PIFPAU18/03	AWC399050	5.2.c- 5.2.d	BEHIN BEHINEAN BAZTERTUA
PIFPAU18/04	16DZ89185	5.2.c- 5.2.d	BEHIN BEHINEAN BAZTERTUA
PIFPAU18/05	16071359V		BEHIN BEHINEAN ONARTUA
PIFPAU18/06	208501878	5.2.c- 5.2.d	BEHIN BEHINEAN BAZTERTUA
PIFPAU18/07	15CF20193	2.1.a.i	BEHIN BEHINEAN BAZTERTUA
PIFPAU18/08	45754529P	5.2.d	BEHIN BEHINEAN BAZTERTUA
PIFPAU18/09	16098444P		BEHIN BEHINEAN ONARTUA
PIFPAU18/10	71343484Z		BEHIN BEHINEAN ONARTUA